

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	INPRIMAKETA DIGITALA EGITEA	Iraupena	50
		Berariazkoa	
Kodea	UF0247		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Inprimaketa digitala	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Gailu digitalekiko inprimaketa	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Inprimaketa digitala prestatzea eta doitzea	Iraupena	60
	Hondakinen mantentze-lanak, segurtasuna eta tratamendua inprimaketa digitalean (zeharkakoa)	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0483_2 EKIPOAK PRESTATZEA, PARAMETROAK DOITZEA ETA INPRIMAKETA DIGITALA EGITEA gaitasun-ataleko LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Inprimaketa digitalerako makina nagusiekin jardutea tirada egiteko eta behar den kalitatea lortzeko.

EI1.1 Materialak behar bezala jartzea makinetan, behar diren emaitzak eta denborak lortzeko.

EI1.2 Inprimaketa-sistemaren berezko akatsak eta erregistroari, koloreari eta intonazioari dagozkienak deskribatzea.

EI1.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Inprimakiaren parametroak birdoitzearen arazoak eta ondorioak erlazionatzea, elikatze-aparatuaren erregistroaren, tindatzearen, presioen eta erregulazioaren elementu mekanikoei eraginez (eskuz edo ekipo informatizatuen bidez).
- Lan-motaren arabera, kolore egokien inprimatze-ordena erlazionatzea.
- Inprimakia originalarekin, aurreinprimaketako probekin eta proba digitalekin edo kimikoekin alderatzea, eta inprimatze-parametroak birdoitzea (presioa, intonazioa, erregistroa) emaitzak probetara hurbiltzeko.

EI1.4 Inprimakiak behar duen kalitatea izatea lortzea.

EI1.5 Makinak eta lehengaiak tiradaren inprimatze-abiadurarekin erlazionatzea, inprimakiaren parametroen arabera (tintaren dentsitatea, inprimaketa-kontrastea, trapping-a, estanpazio-irabazia).

EI1.6 Inprimakia garraiatzeak eragindako akatsak erlazionatzea (birpintatzea, igurzketarekiko erresistentzia, marradurak...).

A2: Prozesuaren kalitate-aldagaiak neurtzea, lortu beharreko inprimatze-produktuei dagokienez tresna egokiak erabiliz.

EI2.1 Zehaztutako tirada batean, lagin inprimatuak lortzeko metodoa eta maiztasuna deskribatzea.

EI2.2 Kalitatea kontrolatzeko erabilitako neurketa-tresnen ezaugarriak eta funtzionamendua bereiztea eta deskribatzea.

EI2.3 Hainbat parametro neurtzea (hala nola dentsitatea, estanpazio-irabazia, inprimaketa-kontrastea, trapping-a, tonu-errorea, gris-edukia, igurzketarekiko erresistentzia, argiarekiko erresistentzia, euskarriaren inprimagarritasuna, irudiaren desplazamendua eta tenperatura) tresna egokiak erabiliz, eta neurketaren emaitza unitate eta modu egokietan adieraztea.

EI2.4 Ondoko gainazalen koloreen argiztapan-baldintzen (kolore-tenperatura, argiztapan-angelua), euskarriaren gainazalaren ezaugarrien (opakutasuna, distira, lautasun-maila eta porositatea), barnatzearen eta lehortzearen eragina deskribatzea kolorea neurtzeko.

EI2.5 Inprimaketako neurketa-prozesu baten kasu praktiko batean:

- Kontrol-zerranda batean esku hartzen duten elementuak behar diren kalitate-parametroen desbideratzearekin erlazionatzea.
- Tiradan kontrolatu behar diren akatsak identifikatzea, deskribatzea, eta, hala badagokio, irudikatzea.
- Dentsitatea, estanpazio-irabazia, inprimaketa-kontrastea, trapping-a, tonu-errorea, gris-edukia, irudiaren desplazamenduak, irristatze-maila, igurzketarekiko erresistentzia, argiarekiko erresistentzia eta euskarriaren inprimagarritasuna neurtzetik ateratako grafikoak kasu praktikoan ezarritako parametroekin erlazionatzea.
- Erabili behar diren kontrol-gailuak identifikatzea.

EI2.6 Ekoizpen-datuak eta inprimaketa-prozesuan hautemandako gertakariak erlazionatzea, eta lan-aginduetan idaztea.

Edukiak

1. Inprimaketa digitaleko prozesua

- o Inprimaketa digitaleko prozedurak: irudia sortzeko teknologia-motak.

- o Eragiketak. Kontrol-parametroak.
- o Inprimaketa digitalerako makinak: atal nagusiak, ezaugarriak egiturak eta motak.

2. Inprimakiaren tirada digitala

- o Dosifikazio-elementu mekanikoak eskuz edo modu elektronikoan birdoitzea: tinta, elementu bistaratzailen transferentzia eta irudia euskarrian erregistratzea.
- o Inprimakia berrikustea. Inprimakiaren parametroak birdoitzea.
- o Makinaren abiadura. Lehengaien eta abiaduraren arteko erlazioa.
- o Inprimaketa digitaleko akatsak. Arrazoia/zuzenketa.
- o Inprimakiaren intonazioa eta kolorea.
- o Inprimakia probekin egiaztatzea.

3. Tiradan zehar inprimakia kontrolatzea

- o Inprimakiaren segimendua egiteko programa eta ekipo informatikoak.
- o Prozesua kontrolatzeko ekipoak.
- o Kolorea kontrolatzeko aparatuak.
- o Inprimakia kontrolatzean kontuan hartu behar diren irizpideak.
- o Inprimaki bukatuaren kontrola: pigmentuak euskarrian duen portaera.
- o Inprimakia ikuskatzeko jarraibideak: laginketa, fidagarritasuna eta neurketa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Inprimaketa digitala.